



Lekitto barrian

hari gara

ehbildu

Udal Programa
2015-2019





sarrera

Azken legealdiaren amaieran gaudenez, aurrera begirako zereginetan gabilitza murgilduta buru belarri. Eta horretan hasi garenerako ezinbestean azertu behar izan dugu orain artekoa. Zehaztasunak zehaztasun, eta, hau edo beste zuzendu edo egokitu beharra izan arren, azken 4 urteotan udalaren kudeaketa ardura izan duen lan taldeak egindakoa, txalotzea baino ez daukagu. Euron lanak eta ekinak, aurrera begirako lan ildoak erabakitzen lagundu digu, euron esperentziaz baliaturik eta zuzeneko harremana izan dugun hainbat eta hainbat herritarren eritziak jasota. Bejondaigula guztioi!

Premina handia dauka HAPOK (Herri Antolamendurako Plan Orokorra). Zuzen-zuzenean eragingo du etorkizunerako nahi eta behar dugun herri ereduan. Garrantzi handiegiko gaia da “beste batzuen” ardurapean uzteko. Herritar bakoitzak badu zer esan eta zer egin, guk udaletik bitarteko guztiak ipiniko ditugu horrela izan dadin.

Krisi ekonomikoa ere ez da naturak berez sortutako gertaera, hala sineztarazi nahi diguten arren. Ukaezinak dira ostera, horrek sortarazitako ondorio garratzak. Lekittar asko daude lan barik, etxebizitzaren premia larrian, hile amaierara ozta-ozta ailegatzen, eguneko matorduak egiteko ezintasunak, ... Eta herritarrok ez gara sistema kapitalista-patriarkal odolzalearen errudun, biktimak baino. Beraz, elkartasuna da herri oso batek izan lezakeen tresnarik eraginkorrena. Ekin diezaiogun denok batera guztiok hobeto bizitzeko eta ez gutxi batzuk bakarrik!

Handiak dira erronkak eta eginkizunak. Neurrikoak go-go eta kemena. Hurrengo 4 urteetarako udalaren ardura hartzeko prest daukagu taldea. Esperientzia eta hasi berrien grina elkartu egin ditugu, baina ... adi, danok! Herri oso baten kudeaketaren ardura gutxi batzuen eskuetan uztea arrisku-tsua da. Norbanako bakoitzak badauka zer eskeini, zer eman eta zer jaso. Gaur udalean, bihar kalean eta etzi lantokian izango gara elkarrekin. Ondo izan eta ekin!



Lekitto Gorria

GARAPEN SOZIO-EKONOMIKOA

“ Enplegua eskubidea da bizi baldintza duin eta autonomia bermatzeko. Orduan, herrian enplegua sortzen lagundu behar dugu eskualdeko garapenean kokatuz. ”

- **Lekeition** dauden merkatariekin elkarlan iraunkorra bultzatuko dugu. Eta ostalariak elkartea sortu dezaten laguntza eskaini.
- **Elikadura burujabetza** helburu izanik, Udal Merkatu Plazaren biziberritze planarekin jarraituko dugu.
- **Arrantzaren egoera** hobetzeko ahaleginak egingo ditugu, Kofradiarekin elkarlanean. Itsasoak eskaini ahal dizkigun beste aukera batzuk aztertuko ditugu.
- **Turismo** eredu jasangarria, soziala, urte osokoa, kalitatezkoa eta herriko kulturen errotua behar dugu.
- **HAPO berrian**, herrian garapen ekonomikorako gune izan daitezkeen eremuak izendatuko ditugu.
- **Lur eremuak** herritarren zerbitzura jarriko ditugu, ortu publikoak bultzatuz.
- **Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta** babesteaz gain, gure eguneroko ekinbidean oinarri izango dugu.





■ Lekitto Gorria

HIRIGINTZA eta ETXEBIZITZA

“ Herritarren ongizatea eta bizi kalitatea hobetzea dugu helburu. Edozein ekimen gauzatzerakoan kontutan izango ditugu jasangarritasuna, mantenimendu erraza eta gastu soziala. ”

- **Etxebizitzaren diagnostia** osatuko dugu, Lekeitioko etxeen egoera ezagutzeko. Etxe hutsen udal errolda egingo dugu.
- **Bigarren etxebizitza** alokairura bideratzeko politikak sustatuko ditugu hartu beharreko neurriak implementatzen hasiz.
- **Etxe trukea** bezalako aukerak jorratuko ditugu, aldi baterako eta etxe jabeen artean adostutako irtenbideak bilatuz.

- **Hiri Antolamendurako Plan Orokor berria** egingo da justizia soziala, ingurugiroaren babesa, genero perspektiba eta euskararekiko errespetua bermatuz.
- **Mugikortasun zein irisgarritasun planak** gaurkotu eta berritasun horiek ezartzeko neurriak hartuko ditugu.
- **Erregai fosiletan** oinarritzen ez den mugikortasuna lehenetsiko dugu. Beraz, herrian zehar bizikleta, patinete eta oinezkoentzako guneak irabaziko ditugu.
- **Bizikleta**, garraio bide gisa tratatua izango da



“ Herritarren errealitate sozioekonomikoa ezagutzeko, horren arabera alternatibak eraikiko ditugu. Alokairua sustatuko dugu baina lehenik eta behin daukagunetik hasita. ”

■ Lekitto Berdea

INGURUGIROA

- **Kontsumo** arduratsuagoa sustatuko dugu hainbeste hondakin ez sortzeko.
- **Hondakinen kudeaketa:** gaur sortu eta erretzera bidaltzen duguna jasangaitza da. Hondakinen %50a organikoa izanik, hasiak gara auzokonpostaren bidetik beste eredu baterako bidea egiten eta horretan jarraituko dugu.
- **Birziklatze eredu** eraginkorragoa ekarriko duen bilketa sistema adostu eta ezarriko dugu.
- **Energia berriztagarrien** eredurako urratsak jorratuko ditugu, udal eraikinen efizientzia energetikoa hobetzeko neurriak hartuz.
- **Aintzinako bideak** (Bidezidorrak, esaterako) errekuaratzeko lanari eutsiko diogu. Lea ibaiaren inguruan eta herri osoaren bueltan egon dauden bideak errekuaratzeko plana zehaztu eta burutuko dugu.

“ Ekologistak gara, Ama Lurra eta Lekeitio ingurugiroaren ikuspuntutik defendatuz jarraituko dugu berau da-eta gaurko lekeitiarren eta biharko belaunaldien ondare nagusia. ”





■ Lekitto Morea

PAREKIDETASUNA



- **Berdintasun plan berria** martxan jarriko dugu.
 - **Emakumeen** ahalduntzean aurrera egingo dugu dauzkagun baliabide guztiak erabiliz.
 - **Herriko** emakume taldeekin elkarlanean arituko gara etengabe.
 - **Indarkeria sexistaren** aurkako ekimenak garatu eta neurriak hartuko ditugu.
 - **Egun berezien** lanketan jarraituko dugu: Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna, Askatasun Sexualaren eguna, Homofobia, Lesbofobia eta Transfobiaren aurkako Eguna, Indarkeria sexistaren aurkako Eguna...
- “ Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde egingo dugu Euskal Herriko Emakumeen Eskubideen Karta oinarri hartuta. Ekonomia feministaren oinarrien araberako lanketa egin eta berau gure ekinbidean txertatuko dugu. ”
- **Nagusien, umeen, etxearen... zaintzaren** inguruko hausnarketa egingo dugu: alternatibak, denbora bankua, arduren partekatzea,...
 - **Emakumeak** bistaratzeko ekimenak landuko ditugu: sentsibilizazio kanpainak, herriko emakume ezberdinen lanak erakutsi...



Lekitto Horia

UDAL ANTOLAKUNTZA eta PARTE HARTZEA

“ Herri mugimenduekin eta elkarteekin jardun behar du Udalak eskuz esku. Parte hartze kultura etengabe bultzatu behar da: **herria udalera eta udala herrira** ”

- **Aurrekontuak** modu parte hartzailean egitea ezinbestekoa da.
- **Herritarren parte hartzea** sustatzeko eta gauzatzeko markoak eratu, bultzatu eta gure egunerokoan txertatu behar direla uste dugu.
- **HAP0a**, Herri Antolamendurako Plan Orokorra da lurzorua, etxebizitzaren, ekipamenduen eta gure herriaren nondik norakoak zehazten dituen tresna. Herritarren parte hartzea oinarri, legegintzaldi honetan **HAP0 berria eztabaidatu, osatu, adostu eta onartuko dugu.**
- **Auzolana erregularizatu** eta bide horretan sakonduko dugu.
- **Herritarren arretarako** udaletxea astean bitan arratsaldez ere zabaltzea ahalbideratuko dugu.
- **Gardentasuna** lantzen jarraituko dugu: udal prozedurak eraginkortuz, erretuz eta koordinatuz.
- Arlo konkretuetan (euskara, kultura, etxebizitza, garapena...) egin daitezkeen lanketa ezberdinetan, parte diren eragile ezberdinekin **harreman-mahaia** sortzea bultzatuko dugu.
- Udal langileekin batera, beraien **lanpostuen edukiak, betebeharrak eta baldintzak eguneratuko** ditugu, udaleko baliabideak hobetuz eta beharrezko kasuetan indartuz.





■ Lekitto Horia



GIZARTE - ONGIZATEA

“Gizarte Zerbitzuen sistema publikoa, dohakoa eta unibertsala geure eginez, lehentasunezko zeregina izango dugu gizarte bazterkerian dauden herritarrei babesa ematea. Era berean, kultur zein jatorri aniztasuna ere babestu egingo dugu.”



etxe kaleratzeak, langabezia, zerbitzu publikoen suntsiketa, edozein inposaketaren aurrean



- **Udalak Gizarte larraldietarako** bideratzen dituen **laguntzen ekarpenari** eutsi eta hobetzera joko dugu. Eta beste erakundeek ematen dituzten aukerak ere herritarren mesedetan jarriko ditugu.
- **Ongizateko** oinarrizko zerbitzuak beharrezko dituenari eskura ipiniko dizkiogu.
- **Mendekotasun** egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta arreta sustatuko ditugu etxez etxeko zerbitzua bultzatuz.
- **Babesgabeko** egoeretan dauden familiei zuzendutako interbentzio programak bideratu egingo ditugu.
- **Laguntza eskaerak** bideratzeko espazio egokiagoak zihurtatuko ditugu.

■ Lekitto Horia

GIZA ESKUBIDEAK eta MEMORIA HISTORIKOA

“ Urteetan bizi dugun gatazka politikoaren ondorioak konpontzeko bidean. ”

- ***Giza eskubideetan oinarri duen kultura sustatuko dugu.***
 - > Pertsona guztien giza eskubideak oinarri dituzten ekimenak bultzatuko ditugu eremu guztietan.
- ***Elkarbizitza egonkorra eta iraunkorra eraiki nahi dugu.***
 - > Arrazoi politikoengatik preso dauden euskal herritarren giza eskubideak errespetatuak izatearen alde jardungo dugu.
 - > Gaixotasun larriak dituzten presoak eta legediaren arabera zigorra beteta duten presoak kaleratzea ditugu lehentasun.
 - > Horrez gain, arrazoi politikoengatik sorterritik kanpo bizi diren euskal herritar guztiak etxeratzearen alde jardungo dugu.
- ***Bakea, elkarbizitza demokratikoa eta oroimen historikoa eskuratu nahi ditugu.***
 - > Iraganeko sufrimendu eta gertakizun guztiak argitze aldera lan egingo dugu.
 - > Gure herriaren oroimen historikoa ezagutu eta berreskuratze lanean laguntza osoa emango dugu.





■ Lekitto Horia

GAZTERIA

- **Tokiko** garapen proiektuetan gazteriaren ikuspegia txertatuko dugu.
- **Gazteak** lan mundura sartzeko mekanismoak jarriko ditugu kontratazio publikoetan gizarte klausulak ezarriz.
- **Gazte lokalak.** Gazteak biltzen dituzten lokalentzako araudia gauzatu dugu. Araudi hori egiteko ezinbestekoa izango da gazte, guraso (adin txikikoen kasuan), lokalen jabe eta auzokideen arteko elkarlana.
- **Gazteriarentzat azpiegiturak.** Azpiegituretan udalak daukan jabego urriari alternatibak bilatu beharra daukagu.

“ Gazteriak, krisiaren ondorio latzak pairatzen ditu gordin-gordin. Herri eraikuntzan ezinbestekoa da. Gazteria ahalduna behar dugu, balore parekideak eta askatzaileak oinarri dituenak. ”



Lekitto Urdina

KULTURA

- **Herriko eragile, enpresa zein erakunde ezberdinak** elkartuko dituen kultur-mahaiak berrikusiko du kultur politika, plan orokorra zehazteaz gain: norabideak, irizpideak, inbertsioak, ...
- **Kultur Kaian** barnebiltzen diren ezaugarrien jira-biran jarraituko dugu kultura garapenerako sektore gisa ulertuz.
- **Kultur mapa** osatuko dugu herriko eragile, enpresa eta ekimenekin. Euskarri digitalean erabilgarri egongo den plataforma sortuko dugu.
- **Euskal Zine Bileraren** bultzadan sakonduko dugu, eta, **Nazioarteko Kale Antzerki Jaialdiak** izandako bilakaerari etsi eta indartu.
- **Abaroa Biztu** proiektua herri mailako proiektu estrategikoa dela deritzugu. Abaroa arte eta kultur sorkuntza gune bilakatzea nahi genuke, beti ere, autogestiotik eta herritik.
- **Herriko jai** ezberdinen izaera eta eredia berraztertu behar direla uste dugu jai herrikoi, parekide, euskaldun eta parte hartzaileak bermatzera bidean.

“ Kultura denbora emate hutsa baino askoz gehiago da. Garapenerako ezinbesteko elementua da eta turismo eredu berria lantzeko aukera eskaintzen du. Horregatik, auzolana oinarri duen kultura bultzatuko dugu. ”





Lekitto Urdina




EUSKARA

“ Lekeition ere euskara dugu berezko hizkuntza. Kohesiorako eta integraziorako tresna izateaz gain, gure kultura zein nortasunaren funtsezko osagarria da. ”



LEKITTON HOLANTXERIK DA???



*EMON BESARKADIA, KOLPE KOKOTETIK, LAZTANA

- **Herri mailako** euskararen mahaia, euskararen aldeko normalizazioan lan herritarra egiteko eremua izango da.
- **Euskara** zerbitzuari egituratuta dagoen moduan eutsiko diogu, baina baliabide gehiagoz hornituta eraginkorragoa eginez.
- **Bertoko** euskarak duen ondarea jaso eta landuko dugu (gure euskalkiaren idazkera ikertuz edota berba eta esamoldeen bankua eratuz, esaterako).
- **Merkatari eta tabernariekin** elkarlanean ostalaritza erabat euskalduntzea da gure erronka nagusietako bat.
- **UEMA**rekin lanketak areagotuko ditugu, administrazio guztiz euskalduna helburu.

Lekitto Urdina

HEZKUNTZA



- **Gure helburua** Hezkuntza Sistema Propioa lortzea da eta berau eraikitzeko daukagunetik hasi behar gara: Eskola eta Ikastola dira gure proiektuaren oinarria.
- **Herriko curriculum** idatzi nahi dugu hezkuntza eragileekin elkarlanean, Lekeitioko historia, usadioak eta kultura balioan jarri ikastetxeetan lantzeko.
- **Musika eskolak** behar duen gune propioa eskeintzea ahalbideratuko dugu.
- **Egungo aisialdi eskaintza Pal-Palian** hausnarketa/prozesu parte-hartzaile baten ondorioa da. Herritar parte-hartzaileak, sortzaileak eta arduratsuak egitera bideratu behar da aisialdia.

“ Hezkuntza nazio eraikuntza eta eraldaketa sozialerako oinarritzko zutabe izateaz gain, herrien zein norbanakoon garapen integralerako ezinbesteko tresna da. Beraz, **hezkuntza inbertsioa da, ez gastua.** ”

- **LOMCE** legeari aurre egiteko bitartekoak aktibatu behar dira.
- **AEK eta EPA** hezkuntza eragileen ezinbesteko lana aitortu behar dugu. Azpiegitura duinak eskaini behar zaizkie.





■ Lekitto Urdina



KIROLA

“ Kirola eta jarduera fisikoa aisialdi-aukera, osasun-ohitura modura eta harremanetarako aukera lez sustatzea da gure erueda. ”



- **Kirol zerbitzua:** kudeaketan, berrantolaketan eta zuzendaritzan zerbitzua hobetzeko egokitzapenei eutsiko diegu.
- Kiroldegan, igerilekuan eta beste udal Instalazioetan **berritze lanak** egingo dira.
- **Kirol taldeekin elkarlanean** jarraituko dugu. Horretarako, beraien beharrianak erantzun eta beraiek herri bizitzan duten parte-hartzea indartzen ahaleginduko gara.





■ Lea-Artibai

Lea Artibai eskualde txikia izanik eta Bizkaiko erdigunetik kanpo dagoenez beharrezkoa da udalherri guztiak batera lan egitea. Guk EH Bildutik Eskualdearen aldeko apustu irmoa egiten dugu eta horretarako gaur egun dauden mankomunitate bien arteko elkarlana bultzatuko dugu. Gure ustez gaur egun Lea Artibaiko mankomunitatean ditugun eskumenekin jarraitzeko apustua egiten dugu baina eragin-korrako bihurtuz, horretarako alderdien arteko talkak alde batera utziz. Aurrerantzean gure asmoa eskumen gehiago mankomunitatzea da beti ere herritarrei eskaintza hobea egiteko eta Lea Artibai justuago eta parekideagoa lortzeko.




RAKEL ELU BENGOTXEA
Lea-Artibaiko Amankomunazgorako lehendakariagaia

Bizkaitarron garaia da, herritarron garaia. Behetik gora eraikiko dugu Bizkaia barria

Iritsi da herritarrek bitzta publikoa erregulatzen duten prozesu guztien kontrola berreskuratzeko garaia. Badago eta beharra! Halaber, klientelismoa, lagunkeria, zerga iruzurra edota ate birakariak bezalako hitzak gure hiztegiatara gehitu behar izan ditugu azken bolada honetan.

Bukatu da porlanean oinarritutako ekonomiaren garaia, etengabe zorpetu gaituen garapen eredu desarrollistaren garaia, tokiko ekonomia erreala ahuldu duten finantza ekonomia eskulatazaileraren garaia. Garaipen eredu orekatu, dibertsifikatu eta iraunkorrari bidea ireki behar zaio. Eraiki dezagun behetik gora Bizkaia barria!



JOSU UNANUE ASTOREKA
Bizkaiko Ahalduen Nagusirako hautagaia

EH Bilduk lau hankako Bizkaia barria proposatzen du:

- 1. Inor ez dadila bide bazterrean gelditu:** Pertsona guztien eskubide sozialak bermatu behar dira.
- 2. Bitzta ona helburu, trantsizio sozial eta ekologikoa:** XXI. mendeko Euskal Herriaren eredu produktiboa eta erreproduktiboa gaurdanik eraldatu behar dugu.
- 3. Gehien dutenek gehiago ordaindu:** Zerga politika progresibo eta ekitatiboaren alde egingo dugu.
- 4. Erabakiak hemen hartu. Dena erabaki dena aldatzeko:** Burujabetza behar dugu gure bizimoduetan eragin zuzena duten politika publikoak garatzeko.

Lekittoko EH Bilduren Udal Zerrenda

1



Andoni
Seijo Arrinda

9



Xabat
Galletebeitia
Abaroa

2



Edrigo
Aranburu Agirre

10



Maitane
Larrauri Fraile

3



Miren Tere
Aboitiz Erkiaga

11



Miguel
Lamikiz Zarraga

4



Xabier
Arrate Burguillo

12



Maria Eugenia
Goitia Elordi

5




Myriam
Etxebarrieta
Badiola

13



Ibon
Goitia
Bereikua

6



Ipar
Arrinda Letona

14



Esther
Jauregi Anakabe

7



Ainhoa
Lopez Eiguren

15



Unai
Dañoibeitia
Ceballos

8



Pili
Robles
Barainka

16



Marije
Zumaran
Larrinaga